

Donostian, 2021eko maiatzaren 7an

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

ULIAKO HOBI KOMUNA BERRESKURATZEKO EMANDAKO PAUSUEI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Elkarrekin Donostia Udal Taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegi naizen honek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua babesean, MOZIO ARRUNT hau aurkeztu du OSOKO BILKURAN EZTABAIDATZEKO, Uliako hobi komuna berreskuratzeko emandako urratsei buruz.

JUSTIFIKAZIOA

2014ko uztailean, Pablo de Greiff egiaren sustapenari, justiziari, konponketari eta ez-errepikatzearen bermeei buruzko Nazio Batuen errelatore bereziak txosten bat egin zuen, honako hau diolarik: batetik, Espainiako Gerra Zibilak eta haren ondorengo berrogei urteko diktadurak giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktima ugari utzi zituztela, besteak beste, exekuzioak, tortura, atxiloketa arbitrarioak, desagertzeak, presoen nahitaezko lana eta erbesteratzea gertatu zirelarik. Bestetik, hartutako neurriei dagokienez, proposatu du neurri horiek ez diotela erantzun egiaren, justiziaren, konponketaren eta ez errepikatzearen bermeen aldeko estatu politika sendo, barneratzaile eta global bati, eta agerian geratu dira egiaren eta justiziaren arloko hutsune handi-handiak.

Gaur egun, oroimen historikoaren lege ez-nahiko baten 15 urteren ondoren, izapidetze fasean dago memoria demokratikoari buruzko beste lege bat, zeinak behin betiko balioko baitu oroimena berreskuratzeko behar diren bermeak emateko, horren gaineko lana, erakundeen utzikeria gorabehera, ahaleginean amore eman ez duten senideena eta oroimen elkarteena izan delarik.

Oroimen Demokratikoaren lege aurreproiektuak zioen azalpenean jasotzen duenez, toki erakunde gehienek aztarnak ezabatzeko eta desagertuak berreskuratzeko eta identifikatzeko planak egin dituzte edo gauzatzen ari dira.

Ildo horretatik, eta Donostian egindako urratsen berrikusketa eginda, hobien kokapena ikertzeko, Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko 2015-2020 aldirako EAEko Planaren arabera, Donostian hobi bat dagoela ikusiko dugu, Ulian, eta hartan esku hartzea aurreikusita zegoen. Hala, Aranzadik 2003an lehen txosten bat egin zuen, eta hobien Planak esku hartze ertaineko lehentasuna ezartzen zuen.

2015-2020 aldia igarota, lekuan bertan egindako esku hartzeari buruzko berririk izan gabe, beharrezkotzat jotzen dugu Eusko Jaurlaritzak, Gogora Memoriaren Institutuaren bidez, plana betetzea eta Uliako hobia berreskuratzeko urratsak egitea.

Halaber, uste dugu ezinbestekoa dela oroimena berreskuratzeko bidean aurrera egitea, egia onartuta, eta, horretarako, garrantzitsua iruditzen zaigu behar fitrm tresna arauemaileak garatzea, Euskadik oroimen lekuen deklarazioa arautzeko memoria lege bat lehenbailehen izan dezan, eta espazio horiek oroimenerako gune edo leku gisa onartzen dituzten seinaleak ugaritzeaz Batera. Seinale horiekin batera, eta berriz ez errepikatzeko bermeak izateko, behar diren material pedagogikoak garatu beharko dira, toki horiek ezagutu eta aitortzeko.

Hori horrela, hauxe da gure

MOZIOA ARRUNTA

1. Donostiako Udaltzak Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzen dio 2015-2020ko hobi Plana betetzeko eta Uliako hobi komuna ikertu eta berreskuratzeko, Gerra Zibilean Donostian desagertutako pertsonak bilatzeko.
2. Donostiako Udaltzak Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzen dio Euskadiko Memoria

Historiko eta Demokratikoari buruzko etorkizuneko legean Memoriaren Lekuak garatzea eta horien zabalkundea berma ditzala, Udalak proiektu pedagogiko bat garatu ahal izan dezan Donostiako Memoriaren Lekuen inguruan.

3. Donostiako Udaltzako Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzen dio udalentsako dirulaguntzak garatzeko, Donostiako Udalak Donostiako oroimen guneeetako seinaleak hobetu eta handitzeko aukera izan dezan.

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia.